



Elhuyar Zientzia Azoka
Bilboko Areatzan - maatzaren 28tik 31ra




berria

EUSKAL HERRIA

| POLITIKA | EUSKARA | HEZKUNTZA | OSASUNA |

EGA egiten ikasten ari da Latxa

Latxa eredu linguistikoaren aurrerabideen berri eman du Hitz zentroak; ChatGPTren lehen bertsioa gainditu du, adibidez, EGaren atariko proba egiten, eta Trivialen.



Oskar Sainz, Itziar Aldabe, Julen Etxaniz eta Eneko Agirre, Latxa lantzen ari den taldearen ordezkari. GORKA RUBIO / FOKU

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta independentearen alde, 2025 amaierarako 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar du BERRIAK.

Egin zure ekarpena





Arantxa Iraola

2024KO MAIATZAREN 10A - 05:00



Entzun

00:00:00 | 00:06:13



Hitz zentroa EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerketa zentro propioetako bat da, hizkuntza teknologian espezializatutakoa. [Albiste](#) eman du egunotan: beren jardunaren emaitza nabarmenenetariko batek, Latxa hizkuntza ereduak, aurrerapauso «itxaropentsuak» eman ditu, eta gainditu egin du adimen artifizialean garatu den tresna entzutetsuenetariko bat, ChatGPT. Itziar Aldabe, Julen Etxaniz eta Oskar Sainz ikertzaileak ari dira Latxaren lanketan, beste hainbatekin batera, eta Eneko Agirre zentroko zuzendariarekin elkartu dira beren lanaren berri emateko: zehazki zer lortu duten esplikatzeko. Etxaniz: «ChatGTP gainditu du ebaluazio proba batzuetan». Latxa hura baino abilagoa da euskaraz. Zer egiten? «Adibidez, EGako atariko probak egiten, EGako irakurmenetako ariketetan, eta Trivialeko ezagutza orokorreko gaitetan».

Agirrek esan du ez dutela propio horietarako «prestatu», baina gai dela dagoeneko horiek egiteko. Orain dela urtebeteko ChatGPT gainditu du Latxak: lehen bertsioa. Urtebete besterik ez daramate tresna lantzen, eta uste baino urrutirago heldu direla azaldu du Agirrek. «Hasieran, nahiko eszeptikoak ginen». Hizkuntza ereduak «motor handi baten antzekoak» direla esplikatu du: «Hizkuntza teknologian dena egiten da halako ereduarekin». ChatGPT eta tankerako motorrak batez ere ingelesez eta gaztelaniaz dabilta ondo. «Eta guk motor bat sortu dugu euskaraz ondo dabilena».

Bi xede nagusi ditu, eta biak ditu ezaugarri: «Lehena da euskaraz ondo egitea. Bigarrena, librea izatea: guk Latxaren bertsio bat egiten dugun bakoitzean webgune batera igotzen dugu; edozeinek har dezake, eta motor hori erabil dezake bere produktuak egiteko, guztiz irekia delako». Horiek horrela, orain gainerako hizkuntza gutxitu askorentzat ere aski tresna erabilgarria dela uste

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**



«Oraindik ez dago prestatuta jendeak erabiltzeko, oraindik ez du ikasi nola eduki hartu-emanak jendearekin».

ENEKO AGIRRE

Hitz zentroko zuzendaria

Ikasketa prozesua

Webean eskura dauden euskarazko eduki «guztiak» erabili dituzte Latxaren «ikasketa prozesurako», eta arrakastatsua izan da. Sainz: «Irakurtzen eta testuak sortzen ikasi du, aldi berean». Eta «benetakotik» gero eta gertuago ari da. Hitz batetik abiatu, eta hurrengo «aurreikusten» ikasten dute halako ereduek: «Etengabe». Euskarazko testuak urriagoak dira beste hizkuntza batzuetakoak baino, eta kezka zuten hasieran Hitz zentroan, eskasia hori muga izango ote zen, baina emaitzak onak lortzen ari dira. Aurretik «existitzen» zen eredu batetik abiatu dira, eta lagungarria izan da hori: Metaren Llama izan da abiaburua. «Ingelesezt daki batik bat; guk egin diogu euskara sartu, eta orain ingelesez eta euskaraz daki», azaldu du Etxanizek.

Orain helburua denez Latxa erabiltzaileekin harremanetan jarduteko prestatzea, hori nola egiten den azaldu du Agirrek, eta adimen artifizialak egun dituen aurrerabide bizkor eta sakonen erakusgarri dira haren hitzak, txundigarriak: artegatasuna eragiteraino ia. «Bigarren fase honetan, esaten zaio: 'Txintxo portatu'». Alegia, oinarritzko arau sozialak ikasten ditu: zentzu horretan ez okerrik egiteko, legerik ez hausteko. Halaber, gauza «erabilgarriak» egiten irakatsiko diote: «Esaterako, testuen laburpenak». Urtebete barru-edo emaitzak espero dituzte.

«Zientzia jendearentzat egiten dugu, unibertsitate publikoan gaudelako. Bestetik, euskara zaindu nahi dugu».

ITZIAR ALDABE

Hitz zentroko ikertzailea

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta independentearen alde, 2025 amaierarako 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar du BERRIAk.

Egin zure ekarpena



mimo batekin egingo dugu».

Eta punta-puntako eran ari dira. Agirre: «Hemen daukagun gaitasuna ez dago leku askotan Europan. Oraintxe bertan estatuan entrenatu den eredu handiena hau da». Eta badago nola hobetua. «Hurrego Latxa hobe izateko, euskararen munduak testu gehiago behar ditu». Taldeak laguntza eskatu du corpora osatzeko: «Testu horietako asko erakundeen esku daude. Asko digitalizatuta daude, baina ez daude libre. Baina Latxak testu gehiago behar ditu». Oraindik ere abilago jarduteko.

GAIAK

Zientzia eta teknologia

Teknologia eta robotika (adimen artifiziala)

Ikerkuntza

Euskara eta hizkuntzak

Euskara

Hitz ikerketa zentroa

Agirre, Eneko

EHU

Euskal Herria

Aldabe, Itziar

Etxaniz, Julen

Sainz, Oskar

Kazetaritza propio eta independentearen alde

Desinformazioa nagusi den garai hauetan, euskaldunoi informazio fidagarria libre ematea da BERRIaren egitekoa. Eginkizun horri eusteko, ezinbestekoak dira egunkariaren independentzia ekonomikoa eta editoriala. 2025 amaierarako, 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar dugu.

Egin zure ekarpena

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independientearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAk.


**Egin zure
ekarpena**



INTERESGARRIA IZAN



BERRIAren albiste buletinak



- Astekaria
- Badok-en buletina
- Goizeko buletina
- Arratsaldeko buletina
- Kinka
- Mendia
- BERRIA Ikasgela
- Kazetaritza ardatz

onatuakideak:
ta Kutxabankeko

HARPIDETU

ira langileen gain
jartzen ari dira, haien aurkako kriminalizazio
kanpaina bat da»

IMANOL MAGRO EIZMENDI

Ukrainan okupatutako lurraldeen estatusa, negoziazioen muinean

IGOR SUSAETA

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleen babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**



*zure onena
azpimarratuz*

berria Taldearen
zerbitzu enpresa



NABARMENDUAK




Agurne Gaubeka:
«Euskara ofizial
izate hutsak ez du
ezer konpontzen»



Ospakizun egun bat
eta erronka kolosal
bat

IOSU ALBERDI

«Guk ez dugu izan
Jaurilaritzaren
babesik: ez orduan,
ezta 30 urteren



'Eu
itx
MIKE

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**



Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

Arratsaldekoa

Goizekoa


Badok

Astekaria

Kinka

Kazetaritza

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu

aldi hau
kontatzeko

Kazetaritza propio eta
independentearen alde,
2025 amaierarako 3.000
irakurleren babes
ekonomikoa behar du
BERRIAK.

**Egin zure
ekarpena**

